

ARAZO EGOERA

NONDIK DATOR JATEN DUGUNA?

ARLOA: Natur zientziak, gizarte zientziak

MAILA: Batxilergoa eta lanbide heziketa

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Gure kontsumo ohituretan hartzen ditugun **erabakiek**, etorkizunera begirako **gizarte egoera oso ezberdinak eraikitze bidea** egiten dute. Ohiturak, oso markatuta izaten ditugu eta zerbait aldatu nahi bada behintzat, **benetako kontzientzia** hartzea beharrezkoa da.

Gure sabela betetzen duten **elikagaien jatorriari** erreparatzen badiogu, tamalez sarritan **urrutiko ekoizpen ezezagunetatik**, garraiobide luzeak erabiliz, iritsitakoak izan ohi dira. Honek, askotan konturatzen ez bagara ere, **eragin zuzen** eta **zeharkakoak** ditu **gure inguruan, paisaian, kutsaduran, ekoizleen eta geure bizimoduan** ere.

ARAZOA

Herriko udalak, gure kontsumo ohituren azterketa bat egin ondoren, proposamen bat luzatu du:” **Gertueneko ekoizleei erostea** elikagaiak, baldin eta **ekoizpen jasangarriaren irizpideak** betetzen badira. Behin, gertueneko elikagaiak bukatzen direnean soilik, urrutiagoko ekoizleei erostea.”

Animatzen al zarete, proposamen honi baietz esatera? Gure eguneroko jatorduetan erabiltzen ditugun **elikagaien jatorria ezagutzera** ausartzen al zara? Behin hori jakinda, **gertueneko ekoizleak ezagutu** eta beraiek ekoiztutako elikagaien bidez, **gure jatorduak antolatzea**?

XEDEA

Elikadura kontsumoaren kontzientzia lantzea da helburu nagusia. Eguneroko **kontsumo ohituren azterketa** bat eginez, horrek **inguruan** ezezik **norberarengan dituen eraginez ohartzea** eta egoera hobetzeko **aukera posibleak aztertzea**.

HELBURUAK

- Eguneroko jatorduetan, erabiltzen ditugun **elikagaien jatorriaz eta ekoizpen moduz jabetzea**.
- **Gertuko ekoizleak eta beraien elikagaiak ezagutzea**.
- Gertuko ekoizleei erosteko, **erosketa modu ezberdinak ezagutzea: zuzenean, kontsumo taldeen bidez, denda txikietan,...**
- **Zuzenean** ekoizleei **erostearen** abantailez konturatzea.
- Elikagaien **ekoizpen modu ezberdinak ezagutzea**: ekologikoa, integratua, konbentzionala, artisau erakoa, industrialara, ..
- Elikagaiak aukeratzerako orduan, kontutan izateko **zenbait irizpide aztertzea**: **gertutasuna, ekoizpen modua** (ekologikoa, konbentzionala, integratua, artisau erakoa, industrialara), **emakumeen presentzia, langileen lan baldintzak, ...**

Naturan hezten

- Gure inguruko paisaian, ekosisteman, gure osasunean, gure harremanetan, herriko ekonomian,... **gertuko ekoizleen elikagaiak aukeratzearen ondorioez jabetzea.**

—

ATAZA

Eguneroko **elikagaien jatorria, ekoizlea eta elikagaien ekoizteko moduak** zeintzuk diren ohartzea. Elikagaien **aukeraketa** egiterakoan, kontutan izan beharreko **irizpideak lantzea** eta horrek inguru hurbilean dituen **ondorioez jabetzea. Erosketa moduez hausnartzea** eta irizpide egokiak erabiliz, modu egokiena aukeratzea.

—

JARRAIBIDEAK

- Elikadura kontsumo kontzientearen lanketa hau, **taldeka** egin daiteke.
- Eguneroko jatorduak egiteko erabiltzen diren elikagaien bidez **zerrenda bat** osatzea.
- Elikagaien jatorria eta ekoizpen modua aztertzeko, **informazio bilketa**. Ekoizpena ikustera joanez, ekoizleari galdetuz, elikagaien etiketak irakurriz,... Behin, informazio bilduta, jatorria eta ekoizpen moduak zehaztuz aurreko zerrendari gehitzea, taula bat osatzea.

ELIKAGAIA	Jatorria 1	Ekoizpen modua 1	Jatorria 2	Ekoizpen modua 2

- Bizi garen lurraldeko mapa bat hartuz, **elikagaien jatorria kokatu eta markatzea.**

Naturan hezten

- Gure inguruko paisaia, ekosisteman, aire zein lurreko kutsaduran, gure osasunean, gure harremanetan, herriko ekonomian,... dituen onurak aztertuz, **hausnarketa egitea**.

Erabili daitezkeen Informazio iturriak:

- <https://ehkolektiboa.eus>
- <https://www.biolur.eus>
- <http://www.ekolur.eus>
- <https://bionekazaritza.net>

Inguru hurbiletik hasita, **gertueneko ekoizleak eta ekoizpenari buruzko informazioa bilatzea**:

- <https://www.ekolurra.eus/eu/eragileak/eragileen-errola>
 - <https://www.cpaen.org/eu/>
-
- Ekoizpen moduak zehazteko, ondorengo **irizpideak** kontutan izatea oso garrantzitsua da: Gertutasuna, ekoizpen modua (ekologikoa, konbentzionala, artisaua, industrial), ekoizpen tamaina, lan baldintzak,...
 - Informazio hori, bildutakoan, irizpideak kontutan izanik, **azterketa** bat egitea.
 - Horretarako, **irteerak egitea oso gomendagarria** da, informazio zuzenena, ekoizleengana gerturatzea baita, ekoizlearengana joanez eta bere lan egiteko modua, bertatik bertara ezagutuz.
 - Aurkitu diren ekoizle berriak, aurrez aipatutako **mapan kokatzea**.
 - **Taula osatzea**, hasieran aipatutako taulako elikagaien jatorri berriak erantsiz.
 - Mapa eta taula aztertuz, hasieratik hona, elikagaiak erosteko aukerak nola aldatu diren **hausnartzea**. Modu berean, erosketa aldatetek lurraldeko eremu ezberdinetan sortutako abantailez kontzientzia hartzea.
 - Behin ekoizle berriak zehaztuta, beraiek dituzten **salmenta puntuen informazio bilketa**.
 - Salmenta modu ezberdinak: supermerkatuetan, denda txiki, kontsumo talde, zuzeneko erosketa, trukea,.. aztertzea, **bakoitzaren abantaila eta desabantailak aztertuz**.

Naturan hezten

- Lanketa guztia bukatzeko, talde bakoitzak egin duen **azterketaren aurkezpena**, gainontzeko taldeei azaltzea komenigarria da, antzekotasun eta ezberdintasunekin elkar aberastuz.
- Egindako lana, **herriko edo ikastetxeko aldizkarian argitaratzea**, herritar gehiagok kontsumo ohituren hausnarketa egin dezan.